

# ARÁNGUIZ / ARANGIZ

– ARABA / ÁLAVA –

Arangiz herria Arabako hiriburutik 7 km iparraldera dago. Hara heltzeko, Abetxuko auzorantz jo behar dugu, eta "Abetxukoko errepidea" hartuta, A-3603 bideari jarraitu eta Arangizera helduko gara.

Ohikoa denez, Donemiliagako Rejaren agerian aipatuta ageri da, Arangiz izenez; Dibinako barrutiaren barruan azaltzen da, golde-burdina bat ordaintzen zuela zehaztuta. Gasteizko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogoan zehazten denez, 1295ean, herri horretarako sei onuradun joan ziren Arabako Artxidiakonoaren barrutiaren bilerara; benetan ere kopuru garrantzitsua. Gerora, kopuru hori gutxiagotu egin zen, eta bi baino ez ziren izan. Arangizek baseliza bat izan zuen San Roke-ren omenez.

El pueblo de Aránguiz se encuentra a unos 7 km, al norte de la capital alavesa. Para acceder a dicha localidad hay que dirigirse hacia el barrio de Abetxuko, y por la "carretera de Abetxuko" nos dirigiremos hacia Aránguiz por la A-3602.

Como es habitual, esta localidad aparece citada en el documento de la Reja de San Millán como Arangiz, donde figura dentro del Alfoz de Divina, contribuyendo con una reja. En el Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria, se recoge cómo a la reunión del Arcedianato de Álava, en 1295, asistieron seis beneficiados de este pueblo, una cantidad nada despreciable. En tiempos posteriores, este número se verá reducido a dos. Tuvo Aránguiz una ermita dedicada a San Roque.

## *San Pedro Apostolua eliza / Iglesia de San Pedro Apóstol*

**A**RANGIZKO SAN PEDRO APOSTOLUAREN ELIZA herri erdian dago, etxez inguratuta. Inguruko eraikin guztien gaineratik lirain eta harro azaltzen da nabarmen, bisitariaren arreta piztu eta iragan distiratsua gogora ekarri nahian. XVI. mendean eta XVII. mendearen hasieran izan zuen loraldia. Tenpluak nabe bakarra du, oso handia, bai zabaleran eta bai altueran. Burualdea poligonal da, bost aldekoa, eta nabeak bi zati ditu. Presbiterioaren bi aldeetara bi kapera daude, nabe nagusia baino baxuago. Epistolaren ondoan ere beste kapera bat dago, Zaratetarrena, Hirutasun Santuari eskainia. Eliza osoa nerbiadun gangaz beteta dago, eta estalkietako nerbiaduretan ageri diren sare biziki zailek argi erakusten dute harginen maisulana eta eraiki zen garaiko eliztarren ekonomia-ahalmena.

XVI. mendea baino lehen, Erdi Aroko eliza bat egon zen Arangizen. Gaur egun, harburu batzuk eta bataiarria baino ez dira geratzen. Harburuak hegoaldeko horman sartuta daude, lurzorutik oso altu; beraz, argi dago jatorrian ez zirela hor egon, Erdi Aroko antzinako elizaren teilatu-hegalaren lekuan baino. Arkitekturaren arkeologiak tenplu honen bilakaera zehazten laguntzen digu: badirudi, katedral txiki bat bihurtzeko asmoz eraiki zela. Harburu guztiak lisoak dira, gizon baten irudia irudikatzen duen bat izan ezik. Giza irudi horrek aurpegiera oso gogorra du,

**L**A IGLESIA DE SAN PEDRO APÓSTOL, de Aránguiz, está en el centro del pueblo, rodeada de casas, destacando en altura sobre todas ellas. Se muestra esbelta y orgullosa, intentando llamar la atención del viajero, y recordando su pasado esplendoroso. Una época que corresponde al siglo XVI, y comienzos del XVII. El templo tiene una sola nave, muy amplia, tanto en anchura como en altura. La cabecera es poligonal, de cinco lados, y la nave, de dos tramos. A ambos lados del presbiterio se abren dos capillas más bajas que la nave principal, y en el lado de la epístola otra capilla, la de los Zárate, que está dedicada a la Santísima Trinidad. Se cubre toda la iglesia con bóvedas de nervios, mostrando sus cubiertas una explosión de complicadas tramas en las nervaduras que demuestran la habilidad de los maestros canteros y el poderío económico de los feligreses de la época en que fue ejecutada.

Con anterioridad al siglo XVI, hubo en Aránguiz una iglesia medieval, de la que se conservan unos pocos canecillos y la pila bautismal. Los canecillos están incrustados en el muro sur, a gran altura del suelo, por lo que es imposible pensar que fuera ése su sitio original, correspondiendo con el alero del tejado de la primitiva iglesia medieval. La arqueología de la arquitectura nos ayudaría a determinar la evolución de este templo, que parece que



Hegoaldeko bormako barburua / Canecillo del muro sur

batez ere begiak eta ahoa, besoak zabalik ditu eta hankak bilduta. Baina horiek guztiak oso neurri txikikoak dira moztuta dagoen sexu-organo neurrigabearen aldean. Beraz, exhibizionistatzat joko dugu.

Bataiarria Erdi Arokoa da. Kopa erdiesferikoa da, lisoa, eta lau zutabe erantsita dituen nukleo zirkular baten gainean dago ezarrita. Lau zutabe horiek gurutze forma ematen diote angeluetan erliebeak dituen oinarriari.

Testua eta argazkiak: RHA

#### Bibliografia / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 109; CORRES IBÁÑEZ, P., 2008, pp. 28-29; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 416; PORTILLA VITORIA, M. J., *et alii*, 1975, p. 217.



Bataiarria / Pila bautismal

nació con el espíritu de convertirse, casi, en una pequeña catedral. Todos los canecillos son lisos, a excepción de uno que representa la figura de un hombre, de rasgos faciales muy marcados, en particular los ojos y la boca. Abre los brazos y se encoge de piernas. Todo ello es de reducidas dimensiones en comparación con lo desproporcionado del sexo, que se halla mutilado, por lo que lo calificamos como exhibicionista.

La pila bautismal es de época medieval. Tiene la copa semiesférica, lisa, y se apoya sobre un núcleo central circular al que se adosan cuatro columnas, dando una forma cruciforme a la base que lleva relieves en los ángulos.

Texto y fotos: RHA